



Proiektuko artistak, atzo, Astran, udalerriko zerua zeharkatuko duen pankarta margozten. ANE MARURI

## Zeru Trukaketa proiektua garatzen ari dira Gernika-Lumon

Memoria historikoa lantzen duen proiektuak Berlingo eta Gernikako zeruak batzen ditu • Berlingo zerua irudikatuta daraman pankarta irailaren 21ean ikusiko da udalerrian

### -ANE MARURI ARANSOLO

Gernika-Lumo

Michael Klant sortzaile alemaniarraren Zeru Trukaketa proiektuaren bigarren zatia garatzen dabilta egunotan Gernika-Lumoko eta Berlingo artistak, Astran. Proiektuak bakerantz bideraturiko oroimenezko kultura kontzeptua garatzea du helburu, eta Berlin eta Gernika-Lumoko herrien arteko adiskidetzeari irudikatzen gura du.

Artista alemaniarraren proiektua urte hasieran abiatu zuten, eta pankarta bana daramaten bi hegaldi burutzeari datza. Lehenengo hegaldia Berlingo zeruan ikusi ahal izan zen apirilaren 26an, Kondor Legioak 1937an Gernika-Lumo bonbardatu zuen egun berean. Orain, proiektuaren bigarren zatian, Berlingo zerua irudikatzen duen bigarren hegaldia udalerriko zeruan ikusi ahal da Bakearen Nazioarteko Egunean, irailaren 21ean. Hala, hegazkin txiki batek

100 metro karratu inguruko pankarta bat eramango du udalerriko inguruan zehar 11:00etatik 14:00etara bitartean, eta lurreantz jausten utziko du forma «ikusgarriak» eginez. «Pankarta kulunkan erortzen uzteagaz inbasio artistiko bat egin gura da, airetiko balizko suntsiketen kontrapuntu gisa. Hala, mugak zeharkatzen dituen ekintza izango da, eta gaur egungo bereizte nazionalisten gorakadaren aurka zuzenduta egongo da», adierazi dute ekintza artistikoaren arduradunek.

### Memoriaren lanketa

Gernika-Lumo hiri baten kontrako lehen bonbardaketa «indiskriminatuaren» ikurra dela gogorarazi dute Gernika Gogoratuz elkarteko kideek, eta handik gutxira, 2. Mundu Gerra osoan, airetiko eraso Berlingo hiritarren aurka ere erabili zutela adierazi dute. Hala, Espainian eta Alemanian memoria histori-

koa eta oroimena zuzen landu ez dela arrazoituta, gertaera horiek gogorarazi eta landu gura izan dituzte Klantek, Gernika Gogoratuz elkartek, Lobek eta Alemaniako Deutsch Baskischer Kulturverein taldeak: «Espainian, Memoria Historikoaren Legea, 36ko Gerrako memoria landu eta horren ondorioak aurreikusten dituen, 2007ra arte ez zen onartua izan. Eta Alemanian, 1997an Gernikako bonbardaketari buruzko adierazpen ofizialak egin ziren arren, alemaniarrek 36ko Gerran izan zuten eskuartzearen berririk ez dago».

Testuinguru horretan, Klant artista eta irakasleak pintura lantzen duen ekintza artistikoa bultzatu zuen, eta bertako artistekin dihardu lanean: Damaris Pan EHUko Arte Ederretako Fakultateko irakasleagaz, Angela Lopez Gernikako Astrako kideagaz eta Maitane Azurmendi Gernikako Lobak elkarteko kideagaz batera.

## 11/13 sumarioko auzipetuei babes adieraziko diete asteburuan

Bihar manifestazioa egingo dute Gernika-Lumon, eta etzi futbol partiduak jokatuko dituzte Mundakan • Elkarte, eragile eta norbanakoen babes jaso dute dagoenerako

### -A.M.A.

Irailaren 16an hasiko da 11/13 sumarioko auziaren epaia Espainiako Auzitegi Nazionalan, eta bertan 47 euskal herritar epaituko dituzte euskal presoek eskubideen defentsan lan egiteagatik. Lehenago, baina, auzipetuei elkartasuna adierazteko manifestazioa egingo dute bihar, 19:30ean, Gernika-Lumon, eta futbol partiduak jokatuko dituzte etzi, 12:00etatik aurrera, Mundakako frontoian.

Giza eskubideak, askatasuna, etorkizuna. Herrian lelopean antolatu dituzte ekintzak, eta auzipetuei euren elkartasuna adieraztea dela asmoa azaldu dute antolatzaileek. Hala, ekimen horietan parte hartzea deitu dituzte bizilagunak.

Hilaren 14an, gainera, elkartasun kontzertua egingo dute, Astran, 21:00etan, eta Blaster M eta Leihotikan taldeen doinuak entzun ahal izango dira bertan.

«Herri hau iraganeko egoerara eraman gura dute, herri hau demokrazia eta justiziazko etorkizun baterantz egiten ari den bidea oztopatu gura dutelako», adierazi dute ekintzen antolatzaileek. Hala, guztien artean

errepresioari «egundoko» gola sartzeko lan egingo dutela diote.

Auzipetuek bakoitzaren herri eta auzoetan izaera desberdinetako mobilizazioak egitera deitu zituzten herritarrak, eta egin egingo dituzte. Arazoa ez dela bakarrik makroepaiketa dio Ibon Meñika auzipetu gernikarrik, arazoa gabe iheslarien gaia konpondu gabe egotea dela aste du: «Arazoa ez da bakarrik makroepaiketa, horren atzean dagoena baizik. Guk gure indarrak batu gura ditugu konponbideari baietza emateko. Euskal presoek gaia konpondu gabe egoteak herri honi aurrera joateko aukera oztopatzen dio».

### Babes soziala

Hala, elkarretaratze zein beste ekintzekin Euskal Herriko gehiengo sozial, zabal eta ireki bat konponbidea bultzatzeko prest dagoela irudikatuko dute egunotan. «Konponbideari bidea emateko modu bateratu eta adostuari baietza eman behar diogu, eta epaiketari, berriz, ezetz». Halaber, Espainiako estatuaren aldetik ez dela egoerari erantzuteko ez aukerarik, ez eskaintzarik egon salatu dute.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZAK) DIRUZ LAGUNDUA